

Noiz bortxatü zirade edo noiz erabakitzen düzüe bedeziaren gana joaittea?

Sükarra delarik.

117. Zerentako ez ziren zaharrak ospitaletan egoiteko gogorik?

Orai ere ez dütüzü ez zaharetxe ez ospitaletera nahi. Eta zaharrak ez dütüzü bedeziarengana joan nahi ere, ezpeitüe egia jakin nahi arauz..

118. Eta zahartetxetan erretiratzea?

Orai, familia badelarik eta eztelarik, eriegi denean zaharra, üsü, zahartetxe batetara igorten dizüe..horiek ere lanean ari behar beitüe.

119. Emazteen astegaitzak, eta odol galtzeak badakizü zer diren, zer egiten züen lehen?

Lehen ez dit entzün, orai, min düelarik zer bait hartzen. Eta zonbaitek bedezia ikusten odol sobera galtzen düenean.

Gero haur esperantzarik gabe odolak eküratzen ere bai..

120. Zer dira emazteen lili xuriak? Zertarik horra dira?

Onddo txipi bat beita barnen.. Ez dit uste xahütarzünak deuse ikusteko düanik.

121. Emazteen odol pausü zer adinetan agitzen da?

Orai, berrogeitahamar urteetan...heltübada haurrak lehen beno berantago egiten beitira.

Eta odol pausü hortan zer agitzen da?

Begitaratean berotartzünak baditizüe, odola eküratzen zonbait ere amiñi bat loditzen hormonak gütiago dütüzü.

Eta bizar amiñi bat ere jiten?

Ez dakit.

122. Pottikoen ixurteak zer dira?

Normal düzü..üsüegi delarik früstrazionea ez?

Eta gizon zaharrek zer quinta düe?

Prostata eri..pixastrüa jenatzen (oztopotzen) dizü.. gizonak ez dizü pixegiten ahal..batere.

123. Nola haurra sortzen züen emazteek lehen?

Etxen..etzanik amaren denboran eta aüzo batek lagüntürik. Lehenago ene ustez belaüriko.

124. Lehen emazteek haurrak galerazten zütiena?

Bai...berek galerazten edo lagün batek...edo haurra sortü ondoan eraiten (hiltzen)...mixeriak eginarazten zizün hori...bena jenteeek gordatzen presontegia arrixkatzen düzü, bes-telan..

125. Eta emagintsak?

Zer ("sage-femme")ak, Entzütea badit, lehen emazteek eta orai gizonek ditizüe sortzen lagüntzen., "ginekoek".

4. AÑEZ ELGOYHEN "Arrako"rekin: Hutsegite baten uztak.

Añez Elgoihen "Arrako" Santa Grazikoarekin izan nuen elkarhizketak ahoa bete aginekin utzi ninduen, izan ere euskaraz ederto ta frantsesez gaizki egiten zuelako haukeratu

bainuen. Nahiz baduen hamabost urte ezagutzen dudala, 1989.ko iraila hartan porrot egin nuen, nire xedeak ez baitzitu-
tuen ulertu nahi izan, etxen nola sendatzen ziren, galderak egin nizkionean, gehienetan "ez dakit" edo "nik beno hobeki badakizü" "zük erran!" baitzion. Halaz ere, uztatxo eman zidan hona zertan.

1. **Gaitz bildurgarrienen** artean eta denen gaineratik **kolika** hilgarria eman zidan, "miserere kolika" moduan ezagutzen dena eta haurren kolika berdetatik bereizi duena. Beste berriemaileek ez didate aipatu.

2. **Odolaren geldiarazteko**, errezeta harrigarri baina ballagarri hau eman zidan, zauriaren gainean armiarmen "amainak" pilatuta ipintzea, ta aurretik etxeetan beti edukitzen zituztela etxekanderek esan zidan. Gure iduriz, odolaren gatzatzeko bi elementu zeuden hor "telaraña"ren izpiak eta agian barruan zeuden errautsak. Gaineratu zidan etxe barruko amain trinkoak behar zirela, hots pareta ezkinetan hama-
ka moduan agertzen diren Etxe armiarma (**Tegenaria domestica**, edo **Tegenaria parietina**) delakoaren, amarau-na.

3. **Sendogarria, azkargarria**, Lan torpe ta indartsu bat egin behar zenean, bereiziki udan, langilei lan ardo bat ematen zitzaien: nafar ardo, gehi kanela, gehi lemoez egina; beste gisaz ardo "azkarra" nafarra, eta arraultze gorringo gordina nahasian. Azken hau gaixoei ematen zen.

4. **Zaharrei entzünik**. Dio, aintziña andere asko haur erditzearekin hiltzen zirela eta haur frango lehenbiziko urtean.

GAI BEREZIETAKO BERRI EMAILEAK



"Dordorrage" Joanes CARRICABURUren etxea Ligin.

1. Joanes CARRICABURU "Dordorrage" (Biografia)

Hire izen ta izen txipiak?

Joanes CARRICABURU.

Nola deitzen da hire sortetxea?

"Dordorrage".

Non, noiz sortürik?

Ligin, 1928.an.

Eritartzün handirik üken düka haur denboran?

Ez, ez diat orhit.



Joanes CARRICABURU "Dordorraga" bere 63.urtean (1992)

Non eta noiz egin hüan soldadoka?

Gaixoa 1949.ean Strasburg-en.

Eüskal Herritik kanpo bizitü hiza?

Ez izigarri Alsatzian soldadokan ..gero bidajez España-koan, Parisen eta "Hautes-Pyrénées"tan behin edo beste.

Zer eskola üken hüan?

Gaixoa, ez aski. "Certificat"a igaraiteko püntüan. Aña ta biak eskolan ginelarik Andozen, errejenta goizetik mozkor eta aserik züan, eta adina igaran ondoan ezin egon eskolan.

E'hintzan ezkontü?

Ez, Eta so'ik etxen bi motiko zahar gütük orai, lehen aitti, amama, aitetama ta sei aurhide ginelarik.

Lanean?

Heben, Dordorragan, laborantxan eta etxeko artzaingoan besterik deus ez diat egin, bena aski üken diat horiekien.

Zer mintzaje badakik?

Uskara hobekienik, gero frantsesa eta basa-españolara tzain hanitxen gisa.

Irakurten düka, ezkiribatzen üskaraz?

Güti irakurten diat..frantsesez "journal"a, gero aizinala "xiberotarrez"; eztakiat üskaraz ontsa ezkiribatzen.

Jatekoaren ekonomia ta osasuna

(Basabürüko bi etxeetan)

G. Joanes galtegin nahi neian lehenago nola jaten zünuen eta lehendanik kanbio hanitx izan denez?

A gaixoa, ez diat uste, lehendanik kanbio hanitx izan dela..gure etxen ja ..ezpada kantitatean. Ber zerak jaten 'tügüla uste diat, bena lehen beno haboroxeago eta ezkütük lehen bezala lanean zinpurutzen, bekanikek hanitx lagüntzen gitüe. (1)

G. Pe horietako gisa behiki eta zaldiki jaten düzüeia?

Behiki? Lehen, bederen, sekülan ezkinia(n) jaten ..ez ez, ez behikirik ez xahalkirik, hiritarrentako zütia(n). Behi gazterik ezkinian hanbat saltzen: behi zaharrak gizontarazten gintian eta xahalak hala hala saltzeko. Gerla ondoan eta zonbaitek ergi bat edo xahal bat ehaiten hasi zütia(n), besta handi edo eztei batetako, bena bekan, orai aldiz hanitxek ehoarazten (2) düe eta konjelatürrean sartzen. Bai oroeren bürüan kan-

bioa izan dük. Zamalkia? Sekülan ezkinia(n) jaten. Ez dakiat zerentako eta ez zitadak batere inbeiatzen hartarik jatea; agian, lehen zamariak eta mandoak gure lagünak, gure lane-ko lagünak beitziren.

Astoa ere ez? Erri egiteko maskaradetan holako kontatzen düe, nahiz ez dakigün hun denez ala ez.

G. Zer aragi süerte jaten zünien, ordüan?

Herriko besta eta jeietan, eliza-bestetan, aitzinala gizontarazi ardi zahar bat, hots "artzar" bat edo axuria, lehena erraki jateko, bigerrena saltsan. Etxen, phüntü batez, (3) hamar jale güntian eta zale (4) iresten ginian; beharrere zeren oraiko frigorik ezpeitzen; üsian gütiago ginelarik aüzo batekin erlizka egiten ginian, ardikia ezpeita aisa gazitzen. Gero axuria (5) jaten ginian Bazkoz (6) üsüago eta hobe beita ahüñkia (7). Gero etxe orotan bezala arraultze ta oilasko baginian mahainean, igante zonbaitez, bena haur ginelarik aragia xerrikia züan, eta ordüan handier jente gehitüer baizik ez zia(n) emaiten, haurrek, hümeek arraultze baizik ez ginia(n) eta ez zelarik heetarik ezne, arto ta gaztaiña.

G. Xerrikia, urdankia lehen bezala, lehen bezainbeste jaten düzüeia.

Bai, agian haboro zeren lehen hamar jenterentako bi urde ehaiten ginian eta orai gü bientako bat osorik.

G. Edarietan badea kanbiorik?

Bai, hor bai, orhit hiza nola lehen pittarra edaten günian, bai sagardu eta ardu nahasteka hura, aisa mingazten zena; orai, prefosta (8) egün oroz ardu hobea badiagü eta iganteetan buxuatü (9) edaten diagü, arrotzak balin ba'tügü.

Lehen ezkinian sekülan aperitifik edaten iganteez ostatüan, ardu xuria bai, gero besta apaidü horietan aigardienta (10) eta anisa ere bai apaidü azkenean. Orai azken hogei urteetan Ricard eta holako edaten hasi gütük, bena egünoroz ez, bestelan -zonbaiten gisa - aspaldixkan lürpean güntükek, nahiz zonbaitek etxekitzen düen edariari gük beno hobeki (11).

2. Allande ARTIGAU "Elixagarai"



"Elixagarai hiri" Allande ARTIGAU jaunaren etxea, Ligin

Ordüan hire izen ta izen txipiak behar deiatzat galthatü?

Ni Allande ARTIGAU nük, denek Elixagarai deitzen nüe etxondoaren izenez.



Allande ARTIGAU "Elixagarai" 70.urtean (1992)

Nola deitzen da bizi hizan etxe hau?

Lehen mendian bizi guntian eta karrikan etxe hau egianarazi diagu, hau, arauz "Elixagarai-hiri" dük, Ligin.

Noiz sortürik?

1919.ko maiatzean.

Nun sorthürik?

Gaineko etxe hartan, Ligin.

Eritarzün handirik üken düka haur denboran?

Ez, ez..haurren txipi horik.

Nun eta noiz egin hüan soldadoka?

Marokian egin nüan zerbitzúa, 1940.an.

Gerlarik egin hüana?

Ez.

Eüskal Herritik kanpo bizitü hiza?

Ez, Marokekoa salbü.

Zer eskola egin hüan? "Certificat"a igaran hüana?

Sei urteetan eskolan sartü eta hamabi urteetan "certificat"a Ligiko karrikako eskolan igaran nüan.

E'hintzan ezkuntü, nahiz abantaila üken?

Zer nahi dük etxalte menditsü hartara ez nüan emazerik ekarri nahi.

Lanean?

Laborantxan eta etxeko artzaingoan lüzaz; gero karrikala jaitsi ginenean faktürgoan (kartero).

Erauntsi düka besteen soañatzen? Kürütxe gorriarekin ikasi?

Ardi ta behiez kanpo, bekan., ezpeinüan ikasi.

Aüzoan bazüniena basa bedezirik?

Bai Arjel bazüan, eta amama zena ere, ezkoarekin eta belarrekin.

Mintzajeak?

Üskara ta frantsesa ...españolä nekezago.

Irakurtzen düka?

Bai frantsesez eta üskaraz, eta eüskaraz idazten (aittatta zenak zion bezala).

Bortüko landjerrak

(Goi-mendiko arrixkuak)

Allande Artigau-Elixagarai. Berriemailea

1. Tximistaz. Iñhaziaz

Zer egiten dü inhaziak bortüan?

Gaixoa! jenteak eta kabaleak non nahi hatzamaiten eta hunkitzen ditik; bena aisago beti zühaintze handi horien pean, bizkarrüne edo maxelüne (ibar aldapa) batetan. Aurten ere gure etxerik so egin eta, iraztorretan lau lekütan eroririk badük eta ageri dütük biribil elibat (batzu) erroerik ja...herexak ageri dütük.

Kabaleak nola ehaiten (hiltzen) dütü?

Arhanolatzen ikusi diat lautanhogei ta hirur ardi ehorik (hilik) ber bagapean. Bago hartara erori zia(n) eta kabaleak oro atetütik (metaturik) beitziren eta ebiak bustirik, gaixoa! oro alkarrekin hil zütia(n). Aurten ere eho dik kabale Eskalanpuñero (etxe jaun bat) ligiarrak mando bat galdü dik. Behiak ere ehaiten ditik. Iragoen (etxejauna) Etxebarrenak eho zitia(n) bai zazpi...hortxe zerra-n..zazpi behi ez dik aspaldi.

Eta jenteak?

Jente bat ehaiten ahal dik eta ber gaüza kantükoa (hurbi-lekoa). Gero badük hor ere bi süberte. Badük inhaziak (tximistak) hunkitzen düan hura eta gero zapartareki (zartarekin) ehaiten dian bestea..bi gisatara. Inhaziak hunkirik den hura, nahiz jente, nahiz kabale builtreak (saiak) ez dik jaten, zapartarekin ehorik den hura bai.

Jentea hunkirik delarik ageri dük herexa (aztarna) Graxiana zena ikusi nüa(n) xilo txipi bat bazüan lepo saihe-tsean ezkerretik. Entzün nüa(n) bai Atarratzeko motiko hura inhaziak erre züala, helikopteraz haren bila gure kosi'(lehen-gusu) Beñat ibili beitzen eta harek ikusi nonbait Holtzarte altean.

Egiaz zer egiten dü iñhaziak?(Accoceberri, medikuari zuzentzen natzaio)

"Nik ere entzün dit Atarratzeko gizon hari agitüa eta lehenik elektrizitateak bezala jentea tetanisatzen dizü..bihotza eta hatsa baratzen (geldiarazten); gero aldi hartan inhaziak inkaztü zizün eta gizona müneka baten heinean llabürtü eta beltzatü".

Orazionerik erraiten züena lehen jenteek? (Allande Elixagarai lehengusuari zuzentzen natzaio

gaixoa! Ago. Nola zen hura (parre dagi)

Santa Barbara, santa lilia

Jaunaren hitz handia

Hitz hori erraiten den leküan

Ez da erorten ihurtziria

Hala züan (parre egiten du)...lehenago

Iñhazien lotsa zütian, düründaz (trumoiez) edo iñhaziz (tximistaz) hasten zenean, aixkora bortarlazian (ate arlazian) hara tira lezan; ikusi diat ..amama zenak hura egiten züan hura (irribarre egiten düe).

Beste orazionerik ere erraiten zian eta ezkoa (argizaia) piztürük edükitzen

2. Elür osoa, elür lurta

Elür osoa zertarik horra da?

Elürak lodi eta harro izan behar dik, leün balin badü pea, pezüarekin horra dük behera. Elür mardoarekin dük agitzen, behin karruntatüz geroz (hormatu ezker) ez dük jiten.. Elürra mardo balin bada, eta mendí maxela leün bada, ordüan lerratzen dük eta behera abiatzen.

Ezagützen düka, mendí horietan, elürosoak jente hilik?

Ez, bena elür karruntatüan zütian larrütü, aspaldian, Espaniatik horra ziren Santa Graztar kontrabandistak Lepoxüneko naban agitü züan..Zazpi gizon hil zütian ordüan aldi bakotx..Eztüka entzün kantore hura?

Lepoxüneko naba, denen galgarria...

Bi berset dolorusik nahi tüt kantatü
sujeta ere zer den bietan kontatü:
lau gizon Santa Grazin, mendian larrütü (1)

haien hiltzeak beit dü herria tristatü.

Bederatzü haxero jin zaizkü Bentatik (2),
Lepoxüne nabala elürtearekin.

Lau elür osoak (3) eraman beraiki(n)
ta bostgerrena aldiz, abiatürrik ützi.

Hala hiltze tritea larrüttez joaitea
Lepoxüne-n heen gisa, zatikan jartea.
Jinkoak eman dizagüla hobe suertea
baita ere hilen (4) erran errekia (5).

Lepoxüne-n zütianak elürak berezi
emozüe eskerrak züen Jinkoari,
zeren zütien züek begiratü larrützetik(k)
bai ere mentüraz, arimen galtzetik(k).

Kakoeta-ko botxia (6) parerik gabea
ohit'hadi zer krima gützaz egin düan:
gure odoletarik tonatü (7) hizala,
baita ere ezürak hautsi deizküiala.

Kakoetako arrolla denen galgarria
mila kana barna da zolatik gaïneala;
hil haiek igaran züen aidean bidea,
eta zolan (8) jo züen gogor zen harria.

Kakoetako errekan pausatzeareki(n)
haien ezürak ziren oro arrabaski (9)
baita ere bürüa korpützetik jauzi,
Jesus ez gitzazüla hola hilerazi.

Bortürat joaileak elürteareki(n)
bakean jar zitaie züen Jinkoareki(n)
zeren beitzoazte herioareki(n)
Jinkoak ez zizten Ifernüalat idoki.

Santa Grazi herria, herri botxexüa (10)
non nahi gal bel'liro (11) gizonak bizia:
holako leküetan prest izan behar da
orok dezagün goza Jesusen loria.

(Joanes Casenave "Harigile" **Santa Grazi** pastoralala
Jakín Oinati, 1979)

- (1) larrütü: eroriz amildu ta hil.
- (2) Benta: Izabako Arrako Benta da.
- (3) elür osoa: elur lurta, abalantxa.
- (4) hilen: hilentzat, hilendako.
- (5) errekia: requiem.

(6) botxia: arkaitza, arroka.

(7) tonatü: orbandu.

(8) zolan: ondoan, beheko aldean.

(9) arrabaski: osoki suntsitu.

(10) botxexü: harrizu, arkaitz leku.

(11) beiliro: bai lezake, lezakealako.

Gero Erroimenditik Itürzehetako lepoalartino (mendí atearaino) elürra bizkarraren behera hartürrik, hotzez hil zütian bestorduz nafar soldadoak lanapean herratürrik lehenik Larrainera jinik eta frantses prefetak gibel ütüzlarazirik., han hor, bedera lekütan soldadoak hotzez hil zütian..kürütxe zombait ere ezari zitiean güneka ..badük bat Balentinen kürütxea deitzen dena ..eüskaldün züan soldado hura, Larraintarrekin elestatü zia(n) bortüalat hiltzera joan beno lehen...Igorri beno lehen.

3. Lür ikarea.

Jenteek ez zakiean zertarik eta nontik jiten zen, bena ber gaüza etxea bürüaren gañen erorten ahal zaik..Muntori hil bat agitü zian 1967.an, eta Aretan etxe hanitx desegin zian..hortakoz zaharrek, gure aitzinekoek izigarriko lotseria (bildurra) heentako. Etxeko zaharreneer - axama zenari - entzünik diat Biarnoko alte hortan nonbait herri bat osorik suntsitü züala lürikareak.

Heltübada, ez zütian Biarnokoan, bena Sodoma ta Gomorra (parre egiten du) nontipaitik entzünik (irriz)

Nola ezagützen ahal da lürikare baten hüillantzea (urrantzea, urbiltzea)?

Animale zombaitak ezagützen düe ...tzakürrek phürü bai..arresek ere bai gisala..behiak arramaz hasten direla lürikarea beno lehen erraiten düe..pezaz lehen ezagützen gero..

Zer egiten züen lehen jenteek?

Kanporat elkitzen (ateratzen) prefosta eta gero haidürü (zain) egoiten ...ez dük beste egitekorik.

Bazena otoitzik?

Ez diat entzün, bena ez dük denborarik..ez diat behinere entzün (irriz).

4. Baxetan larrützea (Amildegietan erortzea)

Entzün diat, bena ez ikusi..behia ikusi diat egiten eta eginik, behin beno haborotan..montürak ere bai (zaldi ta astoak); arresa bekanago bena güne tzarreen sartzen bada, besteen gisa Aspildoiko olan ikusi diat.

Eta jentea larrützen delarik nola agitzen da?

Güne gaizto batetan sartürrik, zankapetarik harriak joanik edo jentea desplomatürrik.. Badük hanitx lekütan petik harri lapitza (harbel) eta gainetik oroldi (goroldio) edo belar txar bat zerbait jentea ezagütü gabetarik landjerik eta gero adioli.

Hola hil zütian Koilttat zaharra, lehenago, etxe ondoan, Holtzarteko arrollan eta beste larraintarra Xübürü, Santa Grazin Bordalekü, azken hau ürzokan ari zelarik.. Xübürü ere ürzokan ari zelarik larrütü zian. Aspildoio eta Itürzehetaren artean, bi ihizlari badütük joanik...edo paseazale zerbait. Ziziatze gain hortan badük askagüne baxa bat, belar txar bat gainen sortürrik, lürrik ez dik harri hura leün düet eta günea izigarri txüt..belar hura zankapean ezkapatzen zaik..elkitzen zaik..jauzten dük belarra jentea lerratzen eta hirurehün metra

behera badoatzak han: behin üzokari bat eta beste behin paseazalea peko xenda bat hartü düe eta gero ardiak ere igaraiten ez diren lekütan sartzen. Hürrün joaiten den hura bekan dük bizirik hatzamaite..larrütüa.

5. Zuhaitzetatik erortzea.

Urte oroz hiltzen dük norbait..urzokagia horietan kabañatik eroririk, bizkarezürra edo büüa hautserik...erdiratürrik nola erorten den "Zühaiñetik erorten delarik - erraiten düe - büüz behera erorten dela" eta emaztea egiten delarik hura üzüküz (ipurdiz) egiten (parre egiten du)..Errana dük..Bena dependitzen dik nola abiatzen hizan: zankapeko adar bat hausten bazaik, bederen, xütik abiatzen hiz, behin gero ez dakiat nola üngüratzen den ..eta beste adarrek zer egiten düen; gero esküan hartzen düan hura lerratzen bazaik ordüan plomüa galtzen dük eta erorten.

Beñat gure kosiari zübü banda bat hautse zioan...bizkarean mankatü (zauritu) zian..ez zian horregatik goratik erori bena aski mankatzeko.

6. Harri erorpenak.

Bortüan aski üsü agitzen dük kabale bat baldin bada alde gaïneala, mendi horietan, igaraitearekin harri bat partiarazten düe, behera. Aldepean agitzen bahiz zinez landjerus (arriskutsu) dük eta gertatzen dük bortü horietan jentea hilik. Gero arrolla handi horietan hala nola Holtzarten eta Kakoetan, ebi handietarik landa, ber gaüza harriak jaisten dütük eta düala bi urte gizon bat eta emazte bat hil zütia(n) Kakoeta bisitazten züelarik, harri batek ehorik (hilik). Ezpadük ikusten, ez entzützen jiten, ehaiten hai harek, zale (laister).

Lohi eta lür lurta ez dük üsü agitzen eta ez dik dakidanez jente hanitx eho heben gainti (hemengo alde). Gero kasü egin behar dik, mendian sü emaiten düelarik errakinkan ari direlarik, harri bat zale abiatzen dük eta txipi izanik ere, aski goratik abiatzen bada ehaiten hai.


7. Sua eta beste.

Bazian bai Zunharren Araneko etxeko seme bat badik urte zonbait, destrenpü (alditxar) bat üken zian keak agian itho zian..erori zian ..eta süa heltü zenean ez zian ezkapi ahal izan..eztik aspaldi ixtoriak.

Behar dik zinez kasü eman, orozgainti oihanpetan, erre-karte txar bat badük, hur txar batekin, han erran delako lapitza badük..leün hura..oroldia gaiñen..heetan lerratzen hiz, edo ostoz tapatü zilo batetan hoiña sartzen eta hausten, hura dük üsüenik agitzen dena eta gero lanapean galdürrik mankatzea, larrützea.

8. Zer dira hagak, eta hagetan jaistea?

Eztakiat nola erran..hagetan eraisten zitiea, lehen kolpatüak, hilak ere bai. Bi haga lüze biltzen dütük jente baten lüzegoako, bederen, eta xüxen diren ber ..ez lodiegi. Gero bedere büürtan ezarten ziek bi latha itzatürrik. Hori aski zalhe egiten ahal dük, gero bi hagen artean sokaz egiten dük .. zer bat.khüña bat bezala eta hartan gainen esküpien düana mundjau bat bortüan bahiz, etxen ohestalgi bat plegatürrik..edo bazter horietan iratze osto edo arropa. (ikus marrazkia)



Hagak
(Mendi' baiarte edo andak)

Eria edo mankhatüa hartan gaiñen ezarten dük edo etzarnarazten; gero "hagak" soinetan gainen pausatürrik jentea edo khorpütza jaisten dük: bigek jaisten düe, bat aitzinean (aurrean) bestea gibelean (atzean).

Eta hilentako bardin?


Hil kütxa edo hil barkaren ezarteko etzian khorda khüña haren beharrik, arteko soka heen ezarri beharrik, ordüan hil-kütxa aldepetik estekatzen hüan, hortako, hagak thunbaren gainetik pausatzen (ipintzen) hüntian eta aldepetik khordaz estekatzen hüan, bedera gainti (alde bietatik). Halaxe thunba hura aldepetik estekirik züan, bestelan zotüküa, eskereskuin, handiegi beilizate: ahal bezain apal ezarten hüan thunba. Hurak zütian, leküren gaiñen, egiten ziren hagak (ik. hagen marrazkia).

Eta karkanuak?

Hurak gorotz idokitzeke zütian (zimaür ateratzeko), bena to Graxiana Tornari zena, iñaziak (tximistak) eho züalarik besterik ezpeitzen esküan menean, khorpütza heetan eraitsi zian.

Graxiana, Amahandikoa, Elizabidea erraiten dügün bide hortan hil züan, eta etxeartino karkanuetan eraman zian, etzüan beste gisaz eramaiterik (ik. karkanoen argazkia).

Orai, prefosta, (noski) ez dük ber sistema, etxe orotara baditiagu bide berriak, anbulantzak etxetara eta artzainetara bortüala heltzen ahal dütük; gero zaleago (laisterrago) egin beharbada helikopterak ospitaleala lagüntzen ditüe eriak eta mankatüak.



HOGEGARREN MENDEAN ZUBEROAN BILDU ATSOTITZAK

(Osagarriaz eta eritarzünaz)

1. Erran zaharrak, Intxauspe kalonjeak bildurik eta G. Hérelle-ntzat, Leopold Irigaray ligiarrak aldaturik. (1905)

A. Janariez

Janarien balorapena, besterik adierazi nahi duen atsotitzean ager liteke:

73. **Hobe dük aza zopa adixkidearekin ezinez ollo salda onerizten ez haianarekin**

B. Edariak

Aipatzenago dira janariak baino, beren bertuten edo galbideren gatik, edo eginbarrekoen adierazgarri; Ardoa goستن da

7. **Astoak ardoa ekarten eta ura edaten**

Baina bere gaitzak ere ezagutzen

67. **Haboro itotzen du ardoak, ezinez urak.**

Urak ere bere lekua badu, adibide edo irudi bezala uler dezakegu, ordea, erran zaharra

42. **Ez edan errekan ahal baduk iturrian.**

K. Gosea ta lana

Gosea baitzen oraino mende honen hasieran Zuberoan kezka handia ez da harrizkoa, hemeretzigarren mendean bildu atsotitzak, hogeian irakurtzea.

Denak ez ziren, ordea, gosez hiltzen garaian

64. **Guti hiltzen goseak hanitx aldiz aseak..**

Hobe da, hein batean, gutxi jatea

62. **Guti jatetik eta guti mintzatzetik ez da heltu gaitzik.**

Lanak ekartzen baitu ogia

51. **Ez da ogirik neke gaberik.**

Ogi gogorra ere, halere ona da, Batista Sala Larraineoak bere kantore batetan zion, erran zahar gisan "Ez da xuria baina / gabea da beltza". Intxauspe-k aldiz dio, bildu digu: